

# **IKUSKAPENENKO LAGUNTZAILEAK**

**1. HAUETATIK ZEINTZUK BETE BEHAR DUTE LURREKO GARRAIOEN ANTOLAMENDUARI BURUZKO LEGEA?**

- a) Bidaiarien eta salgaien garraioek.
- b) Trenbideko garraioek.
- c) Garraio-bitartekariak.
- d) Aurreko guztiek.

**2. LURREKO GARRAIOEN ANTOLAMENDUARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, NORK FINKATUKO DITU GARRAIOEN ARLOKO POLITIKA OROKORRAREN HELBURUAK?**

- a) Autonomi erkidegoek.
- b) Udalek.
- c) Aldundiek.
- d) Estatuko Gobernuak.

**3. LURREKO GARRAIOEN ANTOLAMENDUARI BURUZKO ERREGELAMENDUAREN ARABERA, ATAL HAUETATIK ZEIN DAGOKIO LURREKO GARRAIOEN KONTSEILU NAZIONALARI?**

- a) Bidaiarien Garraioa Antolatzeko Atala.
- b) Garraioaren Jarduera Osagarrien eta Gehigarrien Atala.
- c) Garraio-agentzien Atala.
- d) Garraio-bitartekarien Atala.

**4. NORK OSATZEN DU ERREPIDEKO GARRAIOAREN BATZORDE NAZIONALA?**

- a) Estatuko administrazioaren ordezkariak
- b) Autonomi erkidegoetako administrazioen ordezkariak
- c) Garraiolarien eta errepideko garraioaren jarduera osagarrien eta gehigarrien elkarteen ordezkariak
- d) Aurreko erantzun horietatik bat ere ez da zuzena.

**5. ZEIN DA GARRAIOAREN ARLOKO ARBITRAJE BATZORDEEK HARTZEN DITUZTEN EBAZPENEN IZENA?**

- a) Epaia
- b) Agindua
- c) Dekretua
- d) Laudoa

**6. HAUETATIK ZEIN EZ DA ARBITRAJE BATZORDEEN ESKUMENA?**

- a) Lan arloko eztabaidak ebatzea.
- b) Salgaien gordailuzain gisa jardutea.
- c) Lurreko garraioaren kontratuak betetzeari dagokionez sortzen diren merkataritza arloko eztabaidak ebatzea.
- d) Hondatzeko arriskua duten eta kendu ez diren salgaiak besterentzea.

**7. IBILGAILUEK GEHIEGIZKO PISUA DARAMATELA ERAKUSTEN DUTEN ZANTZU ARGIAK DAUDENEAN, GARRAIOEN IKUSKAPENENKO KIDEEK AGINDU AHAL DUTE IBILGAILUA PISATZE-BASKULARA ERAMATEA?**

- a) Bai, beti.
- b) Bai, ibilbidea 30 km baino luzeagoa ez bada.
- c) Bai, ibilbidea 50 km baino luzeagoa ez bada eta baskula martxaren noranzko berean ez badago.
- d) Ez; kontrola egin den lekuan baskula bat dagoenean baino ezin da pisatu.

**8. ARAUDIA GARATZEKO MARTXOAREN 13KO 1/1987 DEKRETUAN (BIZKAIAN ERREPIDE BIDEZKO GARRAIO MEKANIKOEN IKUSKAPENA ETA ZIGORRAK ARAUTZEN DITU) EZARRITAKOAREN ARABERA, NORI DAGOKIO BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO IKUSKATZAILEAK GAITZEA?**

- a) Bizkaiko Foru Aldundiko Garraioak Antolatzeko Zerbitzuko buruari.
- b) Bizkaiko Foru Aldundiko Garraioen zuzendari nagusiar.
- c) Bizkaiko Foru Aldundiko Ahaldu Nagusiar.
- d) Bizkaiko Foru Aldundiko Garraioen foru diputatuari (gaur egun, Garraio eta Hirigintzako diputatua).

**9. LURREKO GARRAIOEN ANTOLAMENDUARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, ERREPIDEAN EGINDAKO IKUSKAPENETAN, ZEIN DA EGIAZKOA GIDARIAREN KASUAN?**

- a) Ez du inoiz enpresa ordezkatu.
- b) Enpresa ordezkaten du, ibilgailuan nahitaez eraman behar diren agiriei dagokienez.
- c) Bakarrik ordezkaten du enpresa garraiolari autonomoa bada.
- d) Bakarrik ordezkaten du enpresa hark ordezkari-tza-ahalorde orokorrak eman badizkio.

**10. MARTXOAREN 5EKO 56/1985 DEKREUAREN ARABERA, HONAKO EGINKIZUN HAUETAKO ZEIN EZ DA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ESKUMENA?**

- a) Goi-ikuskatzailetza.
- b) Errepideko garraioaren ikuskapen zuzena egitea Bizkaiko Lurralde Historikoaren barruan.
- c) Zehapen-espeditenteak tramitatzea Bizkaian egindako faltak direla eta.
- d) Aldundiaren beraren zehapen-espeditenteen ondoriozko kobrantza exekutiboa tramitatzea.

**11. ERREPIDEAN IKUSTEN BADA ARAU-HAUSTEA DAGOELA, GARRAIOA HORRETARAKO BAIMENIK IZAN GABE EGITEN DELAKO, ZEIN KASUTAN IBILGETU BEHAR DA IBILGAILUA?**

- a) Kasu batean ere ez.
- b) Egiten den garraioa publikoa denean.
- c) Egiten den garraioa garraio pribatu osagarria denean.
- d) b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

**12. GARRAIOLARIAK 15 EGUNEKO EPEAN EZ BADITU ZUZENTZEN IBILGAILUA IBILGETZEA EKARRI ZUTEN GERTAKARIAK, ZER AGINDU DEZAKE ZEHAPEN-ESPEDIENTEA HASTEKO ESKUMENA DUEN ORGANOKAK?**

- a) Ibilgailua enkantean jartzea.
- b) Ibilgailua beste leku batera eramatea, eta leku horretan gordetzea gertakariok zuzendu arte.
- c) Ibilgailua prezintatzea, enkantean saltzen den arte.
- d) Ibilgailua besterentzea.

**13. BAIMENDUTAKO GEHIENEO MASA 4 TONAKOA DUEN IBILGAILU BAT ERREPIDEAN DOA BAINA MASA HORI % 11N GAINDITZEN DU. KASU HORRETAN, IBILGAILUA IBILGETZEA AGINDU BEHAR AL DA?**

- a) Bai, gehiegizko pisua baimendutako gehieneko masaren % 6 baino handiagoa baita.
- b) Ez, ibilgailuaren baimendutako gehieneko masa 20 tona baino gutxiagokoa baita.
- c) Ez, ez da ibilgailua ibilgetu behar, baimendutako gehieneko masa % 15 baino gutxiago gainditzen da eta.
- d) Bai, beti ibilgetu behar da, gehiegizko pisua edozein dela ere.

**14. LURREKO GARRAIOEN ANTOLAMENDUARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, GARRAIOEN IKUSKAPENEO AGINTARIEK IBILGETU AL DEZAKETE IBILGAILU BAT?**

- a) Ez, inoiz ere ez
- b) Bakarrik bidaiarien garraioa denean.
- c) Bakarrik garraio nazionalen.
- d) Bai, baldin eta errepidean ikusten bada gidariak egiten dituen arau-haustek segurtasunarentzat arriskutsuak izan daitezkeela.

**15. GARRAIOEN IKUSKAPENAK TAKOGRAFOAN ERABILTZEN DEN ERREGISTRO-ORRIA KENDU DU ETA GIDARIAK IBILGAILUAN EZ DU ORDEZKO BESTE ERREGISTRO-ORRIK. KASU HORRETAN, ETA LURREKO GARRAIOEN ANTOLAMENDUARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, IBILGAILUA IBILGETU DAITEKE?**

- a) Ez; izan ere, erregistro-orria aztertuta ondorioztatu behar da atsedenaldia dela-eta akatsa dagoela.
- b) Ez; izan ere, erregistro-orria aztertuta ondorioztatu behar da gehiegizko gidaldia dagoela.
- c) Ez; izan ere, erregistro-orria aztertuta ondorioztatu behar da atsedenaldia dela-eta akatsa dagoela eta gehiegizko gidaldia ere badagoela.
- d) Bai.

**16. GIDARIAK EGUNEAN 14 ORDUTAN GIDATU DUELA-ETA IBILGAILUA IBILGETZEA ERABAKI DA. GIDARIAK 45 MINUTUKO ATSEDENA HARTU DU. KENDU EGIN AL DAITEKE IBILGETZE HORI?**

- a) Ez.
- b) Bai, baina bakarrik ibilgailu nazionalentzat.
- c) Bai; izan ere, geldialdia egin ondoren eguneko beste gidaldi bat hasten da zenbatzen.
- d) Bai, baina bakarrik hirugarren herrialdeetako ibilgailuentzat.

**17. GEHIEGIZKO GIDALDIA ARAU-HAUSTE ARINTZAT JOTZEN BADA, LURREKO GARRAIOEN ANTOLAMENDUARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, IBILGAILUA IBILGETZEKO ARRAZOIA IZAN DAITEKE?**

- a) Ibilgailuak bere helmugara iristeko oraindik ibili behar duen distantzia 30 kilometrotik gorakoa denean baino ez.
- b) Ibilgailuak bere helmugara iristeko oraindik ibili behar duen distantzia 50 kilometrotik gorakoa denean baino ez.
- c) Ibilgailuak bere helmugara iristeko oraindik ibili behar duen distantzia 70 kilometrotik gorakoa denean baino ez.
- d) Ez.

**18. HURRENGO ARAU-HAUSTEEN ARTEAN, ZEIN EZ DA IBILGAILUA IBILGETZEKO ARRAZOIA?**

- a) Ikuskatzaileen lana oztopatzea.
- b) Takografoa edo abiaduraren mugatzailea manipulatzeko.
- c) Gidariak ikuskapenaren egunaren aurreko asteko disko-diagramak ez eramatea.
- d) Derrigorrezko agiriak faltatzea.

**19. LURREKO GARRAIOEN ANTOLAMENDUARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, ATSEDENIK EZ HARTZEAK NOIZ EKARRIKO DU IBILGAILUAREN IBILGEKETA?**

- a) % 20tik gorakoa denean. % 20tik beherakoa baldin bada, ibilgetu egingo da ibilgailuak bere helmugara iristeko oraindik ibili behar duen distantzia 30 kilometrotik gorakoa bada.
- b) Atsedenaldea dela-eta dagoen edozein akats izango da ibilgailua ibilgetzeko arrazoi.
- c) Atsedenaldea dela-eta dagoen akatsa % 10etik beherakoa bada.
- d) Atsedenaldea dela-eta dagoen akatsa % 20koa bada.

**20. LURREKO GARRAIOEN ANTOLAMENDUARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, IBILGAILUA IBILGETZEN DENEAN, ZEIN DA LURREKO GARRAIOEN IKUSKAPENEN KIDEEK ATXIKI BEHAR DUTEN DOKUMENTAZIOA?**

- a) Ezin dute inolako dokumentaziorik atxiki.
- b) Ibilgailuaren dokumentazioa eta giltzak bakarrik.
- c) Ibilgailuaren dokumentazioa, salgaiena eta dagokien baimena.
- d) Salgaien dokumentazioa bakarrik.

**21. LURREKO GARRAIOEN ANTOLAMENDUARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, IBILGAILUA IBILGETZEN BADA, NORI DAGOKIO IBILGAILUA, HAREN ZAMA ETA BARRUAN DARAMANA ZAITZEKO ERANTZUKIZUNA?**

- a) Garraiolariari.
- b) Poliziako agintaritzari.
- c) Lurreko Garraioen Ikuskapeneko kideei.
- d) Ibilgailua ibilgetu den bidea dagoen udalerriko udalari.

**22. ZEIN DA GARRAIOLARIAK DUEN GEHIENENKO EPEA, LURREKO GARRAIOEN ANTOLAMENDUARI BURUZKO ERREGELAMENDUAREN ARABERA IBILGAILUAREN IBILGEKETA SORRARAZI ZUTEN GERTAERAK ZUZENTZEKO?**

- a) Egun bat.
- b) Hamar egun.
- c) Hamabost egun.
- d) Hilabete.

**23. LURREKO GARRAIOEN ANTOLAMENDUARI BURUZKO LEGEAK DIOENEZ, GARRAIOAREN IZAERAREN ARABERA NOLA SAILKATZEN DIRA ERREPIDEKO GARRAIOAK?**

- a) Bidaiarien garraioak, salgaienak eta mistoak.
- b) Garraio erregularrak eta bereziak.
- c) Garraio publikoak eta pribatuak.
- d) Garraio iraunkorrak eta aldi baterakoak.

**24. LURREKO GARRAIOEN ANTOLAMENDUARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, NOLAKOAK IZAN DAITEZKE GARRAIOAK, HAIEN OBJEKUAREN ARABERA?**

- a) Bidaiarien garraioak.
- b) Salgaien garraioak.
- c) Garraio mistoak.
- d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

**25. ORO HAR, NOIZ IZANGO DA BEHARREZKOA LANBIDE GAITASUNA, GAITASUN EKONOMIKOA ETA OHOREA IZATEA?**

- a) Salgaien garraio pribatua egiteko.
- b) Turismoko automobiletan bidaiarien garraio publikoa egiteko.
- c) Osasun-garraioaren arloko jarduerak egiteko.
- d) Salgaien garraio publikoa egiteko eta salgaien garraio-agentzia, garraio-bitartekari eta biltegizain-banatazailerak jarduerak egiteko.

**26. LANBIDE GAITASUNA ESKATU AHAL DA GARRAIO PUBLIKOA EGITEKO 6,5 TONA ZAMA ERABILGARRI DITUEN IBILGAILU ZURRUN BATEKIN?**

- a) Bai, beti.
- b) Ez, toki-eremuko baimen bat baldin badu.
- c) Ez, bakarrik eska daiteke ohorearen betekizuna.
- d) Ez, bakarrik eska daiteke ahalbide ekonomikoaren betekizuna.

**27. LANBIDE GAITASUNAREN ZIURTAGIRIA LORTZEKO FROGA BATZUK GAINDITU BEHARKO DIRA. ZEIN DA FROGA HORIEN GUTXIENENKO ALDIZKAKOTASUNA?**

- a) Seihilekoa.
- b) Urtekoa.
- c) Bi urtekoa.
- d) Aldakorra.

**28. ADMINISTRAZIOAREN AURREAN GARRAIOLARI JARDUERA EGITEKO BEHARREZKO EZAUPIDEAK DITUDALA FROGATZEN BADUT, ZEIN BETEKIZUN BETEKO DUT?**

- a) Ohorearena.
- b) Gaitasun ekonomikoarena.
- c) Lanbide gaitasunarena.
- d) Merkatura sarbidea.

**29. GARRAIOAN, NORI EMATEN ZAIO AUTOMATIKOKI LANBIDE GAITASUNA?**

- a) Garraiorako ibilgailu baten titularra den edozein pertsonari.
- b) Dagozkion gaitasun azterketak gainditzen dituen edozein pertsonari.
- c) Gutxienez ere 3 ibilgailu dituen edozein enpresari.
- d) b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

**30. GARRAIORAKO 5 IBILGAILU ERABILTZEN DITUEN GARRAIO PUBLIKOKO ENPRESA BATEN KASUAN, ZEIN DA ENPRESA HORREK GUTXIENEZ IZAN BEHAR DUEN GAITASUN EKONOMIKOA?**

- a) 29.000 €
- b) 9.000 €
- c) 5.000 €
- d) 14.000 €.

**31. HURRENGO FIGUREN ARTEAN, NORI EZIN ZAIO EMAN, ARAU OROKOR MODURA, ERREPIDEKO GARRAIO PUBLIKOKO ZERBITZUAK EMATEKO TXARTELIK?**

- a) Pertsona fisikoei.
- b) Ondasun-erkidegoei.
- c) Pertsona juridikoei.
- d) Lan elkartuko kooperatibei.

**32. ZER BEHAR DUTE ADMINISTRAZIOKO ORGANOEK ERABILTZEN DITUZTEN IBILGAILU OFIZIALEK?**

- a) Garraio publikorako baimena behar dute.
- b) Garraio pribatu partikularerako baimena behar dute.
- c) Garraio pribatu osagarrirako baimena behar dute.
- d) Salbuetsita daude garraiorako baimenetik.

**33. HURRENGO GARRAIOEN ARTEAN, ZEIN EZ DAGO SALBUETSITA GARRAIORAKO BAIMENA LORTZETIK?**

- a) Garraio pribatu partikularrak.
- b) Salgaien garraio publikoak, 2 tonatik gorako baimendutako gehieneko masa duten ibilgailuetan egiten badira.
- c) Salgaien garraio publikoak, 3,5 tonatik gorako baimendutako gehieneko masa duten ibilgailuetan egiten badira.
- d) Garraio ofizialak.

**34. HURRENGO BALDINTZEN ARTEAN, ZEIN EZ DA ESKATZEN SALGAIEN GARRAIO PUBLIKORAKO TXARTELAK LORTZEKO?**

- a) Pertsona fisikoa edo juridikoa izatea.
- b) Nazionalitate espainiarra edo Europar Batasuneko herrialderen batekoa izatea.
- c) Araudiak eska ditzakeen zergen arloko betekizunak betetzea.
- d) C, C+E edo C1 motako gidabaimena izatea.

**35. BEHARREZKOA AL DA GARRAIO-TXARTELA DIRU, BALORE ETA SALGAI BITXIEN GARRAIOA EGITEKO, HORRETARAKO BEREN-BEREGI EGOKITU DEN IBILGAILU BATEAN?**

- a) Bai. Beti.
- b) Ez, inoiz.
- c) Bai, garraioa Europako Erkidegoaren barrukoa denean.
- d) Aurreko erantzunak ez dira zuzenak.

**36. NOLA DEITZEN DA ADMINISTRAZIOAK, GARRAIOLARIAK GARRAIO-BAIMENAREN BETEKIZUNAK BETETZEN JARRAITZEN DUELA EGIAZTATZEKO, EGITEN DUEN ALDIZKAKO EGIAZTAPENA?**

- a) Aldian behingo bisatua.
- b) Aldian behingo azterketa.
- c) Aldian behingo berrikustea.
- d) Aldian behingo ziurtagiria.

**37. GARRAIOAK EGITEKO BAIMENEK, EDOZEIN DELARIK HAIEN MODALITATEA, ZER ADIERAZI BEHARKO DUTE GUTXIENEZ?**

- a) Horien titularra den pertsona fisiko edo juridikoaren identifikazioa.
- b) Emaniko baimen mota.
- c) Lurralde eremua.
- d) Aurreko betekizun guztiak eska daitezke.

**38. IBILGAILU ZEHATZETARAKO GARRAIO PUBLIKO BEREZIA EGITEKO BAIMENETAN, ZER IBILGAILUREKIN ORDEZTU AHAL IZANGO DIRA?**

- a) Karga-ahalmen handiagoa duten ibilgailuekin, ahalmen hori baimenaren izaeraren kontrakoa bada.
- b) Sustapen Ministerioak ezartzen duen antzintasuna gainditzen ez duten ibilgailuekin.
- c) Mota honetako baimenetan ezin dira ibilgailuak ordeztu.
- d) Aurreko aukeretatik bat ere ez.

**39. HAUETAKO ZEIN EZ DA BIDAIARIEN ALDI BATERAKO GARRAIO ERREGULARRA?**

- a) Iraupen jakineko epeetan modu jarraian egiten den garraioa.
- b) Urtean zehar modu ez jarraian baina periodikoan egiten den garraioa.
- c) Urtaroko garraioa edo ezohiko azoka eta erakustetara egiten dena.
- d) Unibertsitate-garraioa.



**40. ADMINISTRAZIOAK KASU BATEAN BAKARRIK BAIMENDUKO DU ERABILERA BEREZIKO GARRAIO ERREGULARRA. ZEIN DA KASU HORI?**

- a) Garraioa erabiltzaile talde homogeen eta zehatzentzat egiten denean, eta garraio horrek jarduera komuneko zentro bakarra duenean eta zentro hori denean garraioaren sorburua edo helmuga.
- b) Garraioa erabiltzaile talde heterogeneentzat egiten denean, eta garraio horrek jarduera komuneko zentro bakarra duenean eta zentro hori denean garraioaren sorburua edo helmuga.
- c) Ezohiko azoka eta erakustetara egiten den garraioa denean.
- d) Ohiko merkatu eta azoketara egiten den garraioa denean.

**41. HAUETAKO ZEINI APLIKATU BEHAR ZAIZKIO ESKOLA GARRAIOARI BURUZKO 443/2001 ERREGE DEKRETUAN JASOTAKO SEGURTASUN-BALDINTZAK?**

- a) Eskola-umeen erabilera bereziko errepideko garraio publiko erregularrari, ikasleen 1/3 edo gehiago 16 urte baino gutxiagokoak badira ikasturtearen hasieran.
- b) Bidaiarien erabilera orokorreko errepideko garraio publiko erregularreko zerbitzuei, ibilgailuko lekuen 1/4 edo gehiago 14 urte baino gutxiagoko bidaiarentzat gorde badira.
- c) Bidaiarien autobus bidezko garraio publiko bereziari, bidaiarien 1/2 edo gehiago 14 urte baino gutxiagokoak badira.
- d) Bidaiarien errepideko garraio pribatu osagarriari, bidaiarien 1/3 edo gehiago 14 urte baino gutxiagokoak badira.

**42. ZEIN IBILGAILU ATXIKI DAKIEKE ESKOLAUMEEN ERABILERA BEREZIKO GARRAIO ERREGULARRERAKO BAIMENEI?**

- a) Ikasturtearen hasieran 10 urteko antzintasuna gainditzen ez duten ibilgailuak, antzintasun hori ibilgailuaren lehenengo matrikulaziotik zenbatuta.
- b) Ikasturtearen hasieran 16 urteko antzintasuna gainditzen ez duten ibilgailuak, antzintasun hori ibilgailuaren lehenengo matrikulaziotik zenbatuta. Nolanahi ere, ibilgailu hori aurretik ere garraio mota horretarako erabiltzen zela egiaztatu behar da.
- c) Lehenengo matrikulaziotik zenbatuta, 16 urte baino zaharragoak ez diren ibilgailuak izan behar, baldin eta eskatzaileak egiaztatzen badu ikasturte honetan edo aurrekoan beste ibilgailu bat, eskolaumeen erabilera bereziko garraio erregularreko baimen bati atxikita egon dena, desegin duela.
- d) Aurreko guztiak dira zuzenak.

**43. HAUETAKO ZEIN DAGO BATASUNEKO 561/2006 ERREGELAMENDUAREN APLIKAZIO EREMUTIK KANPO?**

- a) 90 km/h-ko baimendutako gehieneko abiadura gainditzen ez duten ibilgailuak.
- b) 90 km/h-ko baimendutako gehieneko abiadura gainditzen duten ibilgailuak.
- c) 40 km/h-ko baimendutako gehieneko abiadura gainditzen ez duten ibilgailuak.
- d) Aurreko erantzun horietatik bat ere ez da zuzena.

**44. ZER INPRIMATU BEHAR DA ERREGISTRO-ORRIETAN?**

- a) Garraiolariaren izena, abizenak eta helbidea.
- b) Gidariaren izena, abizenak eta helbidea.
- c) Erabilitako ibilgailuaren marka eta modelo.
- d) Orria erabil daitekeen takografo modelo edo modeloen homologazio-marka.

**45. LANEAN HASTEN DENEAN, GIDARIAK HAINBAT GAUZA IDATZI BEHAR DITU ERREGISTRO-ORRIAN, HORIEN ARTEAN HAUETAKO BAT, ZEIN?**

- a) Ibilgailuaren matrikula.
- b) Xasis-zenbakia.
- c) Ibilgailuaren marka.
- d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

**46. ZER EGIN BEHAR DU GIDARIAK TAKOGRAFO ANALOGIKOA MATXURATU EGITEN BADA EDO TXARTO FUNTZIONATZEN BADU?**

- a) Ez du gehiago gidatuko.
- b) Gidatzen jarraituko du, eta, ondoren, bere trafiko-buruari emango dio gertakari horren berri.
- c) Denbora-blokeak adieraziko ditu horretarako dagoen orri berezi batean, orri hori disko-diagramei erantsiko die eta lanean jarraituko du.
- d) Bat bera ere ez da zuzena.

**47. ZEIN DA TAKOGRAFO ANALOGIKOAREN ETA DIGITALAREN ARTEKO EZBERDINTASUNETAKO BAT?**

- a) Takografo analogikoak jarduerak adierazi eta erregistratzen ditu. Digitalak, gainera, memorian gordetzen ditu.
- b) Takografo digitalak gidarien jarduerak erregistratzen ditu eta analogikoak ez.
- c) Takografo analogikoak gidari bakarraren jarduerak baino ez ditu erregistratzen; takografo digitalak, aldiz, bi gidarirenak erregistratu ahal ditu.
- d) Takografo analogikoak jarduerak erregistratu eta memorian gordetzen ditu; digitalak adierazi egiten ditu.

**48. ZER AUKERA EMATEN DU TAKOGRAFO DIGITALERAKO ENPRESA-TXARTELAK?**

- a) Ibilgailu bat gidatzeko aukera.
- b) Takografo digitaletako datuak deskargatzeko aukera.
- c) Takografo digitalean ikuskapen bat egiteko aukera.
- d) Takografoa kalibratzeko aukera.

**49. NOIZ JARRI BEHAR DU GIDARIAK DISKO-DIAGRAMA TAKOGRAFOAN?**

- a) Ibilgailu baten ardura hartzen duenean, nahiz eta takografo digitala instalatuta izan.
- b) Ibilgailu baten ardura hartzen duenean, takografo analogiko bat instalatuta baldin badu.
- c) Asteko lehen egunean baino ez.
- d) Ibilgailua lehen aldiz erabiltzen duenean baino ez.

**50. EGUNEKO ATSEDENALDIAREN AMAIERAREN ETA HURRENGO ATSEDENALDIAREN HASIERAREN ARTEAN GUZTIRA METATUTAKO GIDALDIA ZEIN KONTZEPTURI DAGOKIO?**

- a) Asteko gidaldia.
- b) Etenik gabeko gidaldia.
- c) Eguneko gidaldia.
- d) Bi astean behingo gidaldia.

**51. NOLA KALKULATZEN DA GIDARI BATEN EGUNEKO GIDALDIA, EUROPAKO GIZARTE-ARAUDIAREN ARABERA?**

- a) Batu egiten dira eguneroko atsedena baten eta bestearen artean dauden gidaldi guztiak.
- b) Egun batean, 00:00etatik 24:00etara dauden gidaldi guztiak batzen dira.
- c) 15 minututik gorako bi etenaldiren artean dauden gidaldiak batzen dira.
- d) Batu egiten dira, bai gidatzeko jarduerak eta bai lanaldi bati dagozkion beste lanak ere.

**52. ZER DA EGUNEKO ALDI BAT, ZEINAK DIRAUEN BITARTEAN GIDARIAK BERE DENBORA ASKATASUNEZ ERABIL DEZAKEEN?**

- a) Lanaldia.
- b) Eguneko ohiko atsedena, edo eguneko atsedena murriztua.
- c) Gidaldia.
- d) Libre egoteko aldia.

**53. LAU ORDU ETA ERDIKO GIDALDIA EGIN ETA GERO, ZER EGIN BEHAR DU GIDARIAK?**

- a) Geldiune bat, gutxienez 30 minutukoa, eta, jarraian, gutxienez 15 minutuko beste bat, gidaldian zehar tartekatuta.
- b) Gutxienez 45 minutuko geldione bat.
- c) Gutxienez 30 minutuko geldione bat.
- d) Gutxienez 15 minutuko geldione bat.

**54. GIDARI BATEK ASTERO ZENBAT ALDIZ GAINDI DEZAKE EGUNEROKO BEDERATZI ORDUKO GIDALDIA EUROPAKO ARAUDIAREN ARABERA?**

- a) Astero bi aldiz, eguneko 12 orduko gidaldia egiteraino.
- b) Astero hiru aldiz, eguneko 10 orduko gidaldia egiteraino.
- c) Astero bi aldiz, eguneko 10 orduko gidaldia egiteraino.
- d) Inoiz ere ez.

**55. NOLA HAR DAITEKE EGUNeko OHIKO ATSEDENALDIA ZATIKATURIK?**

- a) Bi zatitan: horietako lehenak, gutxienez, etenik gabeko 4 orduko iraupena izan beharko du, eta, bigarrenak, gutxienez, etenik gabeko 8 orduko iraupena.
- b) Bi zatitan: horietako lehenak, gutxienez, etenik gabeko 3 orduko iraupena izan beharko du, eta, bigarrenak, gutxienez, etenik gabeko 9 orduko iraupena.
- c) Bi zatitan: horietako lehenak, gutxienez, etenik gabeko 9 orduko iraupena izan beharko du, eta, bigarrenak, gutxienez, etenik gabeko 3 orduko iraupena.
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

**56. IBILGAILU BAT TALDEAN GIDATZEN BADA, GIDARIEK EGUNeko ATSEDENALDI BAT IZAN BEHARKO DUTE, EGUNeko EDO ASTEKO ATSEDENALDIA AMAITU ETA HOGEITA HAMAR ORDUKO EPEAN. ZENBAT IRAUN BEHAR DU ATSEDENALDI HORREK GUTXIENEZ?**

- a) 7 ordu.
- b) 8 ordu.
- c) 9 ordu.
- d) 10 ordu.

**57. ASTE BATEAN GIDARI BATEK 56 ORDUZ GIDATZEN BALDIN BADU, ZENBAT ORDUZ GIDA DEZAKE HURRENGO ASTEAN?**

- a) 34 orduz.
- b) 56 orduz.
- c) 90 orduz.
- d) Ez dago mugarik.

**58. LURREKO GARRAIOEN ANTOLAMENDUARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, NORI DAGOKIO ERANTZUKIZUNA TAKOGRAFOA MANIPULATU EGIN DELA HAUTEMATEN DENEAN?**

- a) Garraiolariari bakarrik.
- b) Garraiolariari, manipulatu duenari eta instalazioan eta merkaturatzean lagundu duten guztiei.
- c) Manipulazioa egin duen gidariari bakarrik.
- d) Manipulazioa egin duen tailerrari bakarrik.

**59. ADMINISTRAZIOAREN BAIMENA BEHAR DUTEN GARRAIOETAN EGINDAKO ARAU-HAUSTEETAN, NORI DAGOKIO ADMINISTRAZIO-ERANTZUKIZUNA?**

- a) Salgaiak kargatzen dituenari.
- b) Esku-hartzen duen garraioko operadoreari.
- c) Karga hartu behar duenari.
- d) Administrazio-baimenaren titularrari.

**60. ARAU OROKOR GISA, NORI DAGOKIO IBILGAILUAK BAIMENDUTA DUEN GEHIENEO MASA (MMA) GAINDITZEAK DAKARREN ARAU-HAUSTEAREN ERANTZUKIZUNA?**

- a) Garraiolariari.
- b) Zamaketariari.
- c) Bidaltzaileari.
- d) Aurreko hirurei.

**61. GARRAIO PUBLIKO ASTUN BAT GARRAIO PRIBATU OSAGARRIRAKO BAIMEN BATEKIN EGITEA, ARAU-HAUSTE BAT AL DA?**

- a) Oso larria.
- b) Larria
- c) Arina.
- d) Ez da arau-hauste bat.

**62. GARRAIO PUBLIKOA EDO PRIBATUA AGINDUZKOA DEN BAIMENIK GABE EGITEN BADA, BETI ERE HAMABOST EGUNEKO EPEAN (ZEHAPEN-ESPEDIENTEA HASI DELA JAKINARAZTEN DENETIK ZENBATUTA) BAIMEN HORI ESKATU BADA ETA BAIMENA LORTZEKO BETEKIZUN GUZTIAK EGIAZTATU BADIRA, KASU HORRETAN, LURREKO GARRAIOEN ANTOLAMENDUARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, NOLAKO ARAU-HAUSTEA LITZATEKE?**

- a) Arina.
- b) Larria
- c) Oso larria.
- d) Ez da arau-hauste bat.

**63. LURREKO GARRAIOEN ANTOLAMENDUARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, BERRERORTZEA EMATEN DENEAN IZAN EZIK, ZEIN DA ARAU-HAUSTE ARIN, LARRI ETA OSO LARRIEI EZARRIKO ZAIEN ZIGORRA (ISUNA)?**

- a) Arinetan, 200 euroko isuna, gehienez; larrietan, 1.500 eurokoa gehienez, eta oso larrietan, 5.000 eurokoa gehienez.
- b) Arinetan, 400 euroko isuna, gehienez; larrietan, 2.000 eurokoa gehienez, eta oso larrietan, 6.000 eurokoa gehienez.
- c) Arinetan, 300 euroko isuna, gehienez; larrietan, 3.000 eurokoa gehienez, eta oso larrietan, 6.000 eurokoa gehienez.
- d) Arinetan, ohartarazpena egingo da; larrietan, 1.500 euroko isuna, gehienez, eta oso larrietan, 5.000 eurokoa gehienez,

**64. LURREKO GARRAIOEN ANTOLAMENDUARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, NOIZ PRESKRIBATUKO DIRA ARAU-HAUSTEAK?**

- a) Arau-hauste oso larriak 3 urtera preskribatuko dira.
- b) Arau-hauste larriak 2 urtera preskribatuko dira.
- c) Aurreko bi erantzunak zuzenak dira.
- d) Arau-hauste guztiak urtebetera preskribatuko dira.

**65. LURREKO GARRAIOEN ANTOLAMENDUARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, ZEIN DA ZEHAPEN-PROZEDURA BAT JAKINARAZTEKO GEHIENEN EPEA?**

- a) 3 urte.
- b) 2 urte.
- c) Urtebete.
- d) 6 hilabete.

**66. LURREKO GARRAIOEN ANTOLAMENDUARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, INTERESDUNAK BERE BORONDATEZ ERABAKITZEN BADU ZEHAPENA ORDAINTZEA, ZEHAPEN-ESPEDIENTEA HASTEKO ERABAKIA JAKINARAZI OSTEKO HAMABOST EGUNEKO EPEA IGARO AURRETIK, TXIKITU EGINGO DA HASIERAN PROPOSATUTAKO ZEHAPENAREN ZENBATEKOA. ZENBAT TXIKITUKO DA?**

- a) % 50
- b) % 30
- c) % 25
- d) % 15

**67. IKUSKAPEN ZERBITZUEK AGINDU AL DEZAKETE IBILGAILU BAT IBILGETZEA LURREKO GARRAIOEN ANTOLAMENDUARI BURUZKO LEGEAN JASOTAKO ARAU-HAUSTE BAT USTEZ IKUSTEN BADUTE, BALDIN ETA SALAKETAREN UNEAN ZEHAPENAREN ZENBATEKOA ORDAINTZEN EZ BADA EDO KAUZIOA EGITEN BADA?**

- a) Bai, arau-haustea egoitza Espainiako lurraldean ez duten pertsonak egin badute.
- b) Bai, arau-haustea larria bada.
- c) Ez, inoiz.
- d) Bai, arau-haustea oso larria bada.

**68. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN BARRUAN, NORK EZARRI BEHAR DITU TURISMOKO AUTOMOBILETAN EGITEN DEN HERRI ARTEKO GARRAIOAREN TARIFAK?**

- a) Udalek.
- b) Aldundiek.
- c) Eusko Jaurlaritzak.
- d) Aurreko guztiak dira zuzenak.

**69. TAXIAREN EUSKAL LEGEAREN (2/2000) ARABERA, NORI DAGOKIO TURISMOKO AUTOMOBILETAN HERRIZ KANPOKO GARRAIO-BAIMENAK EMATEA ETA BALIORIK GABE UZTEA?**

- a) Udalei.
- b) Aldundiei.
- c) Sustapen Ministerioari.
- d) Eusko Jaurlaritzari.

**70. TURISMOKO AUTOMOBILETAN EGITEN DEN BIDAIARIEN GARRAIO PUBLIKOARI BURUZKO ARAUDIAN ZEHAZTEN DENAREN ARABERA, ZEINTZUK HARTUKO DIRA ZERBITZU ESPEZIALIZATUTZAT?**

- a) Turismoko automobiletan egiten den erabilera bereziko garraio erregularreko zerbitzuak.
- b) Gidaririk gabeko ibilgailuen errentamendu bereziko zerbitzuak.
- c) Garraio bereziko zerbitzuak, 9 plazatik gorako ibilgailuetan, gidaria barne.
- d) Garraio erregularreko zerbitzuak, 9 plazatik gorako ibilgailuetan, gidaria barne.

**71. 1978KO KONSTITUZIOAREN 1. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, ZEINTZUK DIRA BERE ANTOLAMENDU JURIDIKOAREN BALIO NAGUSIAK?**

- a) Nazionalitateen eta erregioen autonomia eskubidea eta horien guztien arteko elkartasuna.
- b) Xedapen zehatzaileen atzeraeragin eza —xedapenok banakako eskubideei begira onuragarri izan ez edo eskubideok murrizten dituztenean—, segurtasun juridikoa eta legezotasun-printzipioa.
- c) Justizia, berdintasuna, askatasuna eta aniztasun politikoa.
- d) Aurreko erantzun horietatik bat ere ez da zuzena.

**72. NOLA KALIFIKATZEN DITU 1978KO KONSTITUZIOAK AUTONOMIA ESTATUTUAK?**

- a) Autonomia erkidego bakoitzeko funtsezko arau gisa.
- b) Antolamendu juridikoaren oinarritzko arau gisa.
- c) Estatuaren oinarritzko erakunde-arau gisa.
- d) Autonomia erkidego bakoitzeko oinarritzko erakunde-arau gisa.

**73. ZEREN BIDEZ FINKATUKO DA LEHENDAKARIA HAUTATZEKO MODUA?**

- a) Lege organikoa.
- b) Diputatuen Kongresuko legea.
- c) Eusko Jaurlaritzaren dekretua.
- d) Eusko Legebiltzarraren legea.

**74. EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAN EZARTZEN DENAREN ARABERA, ZEIN DA ERANTZUN OKERRA?**

- a) Euskal Herriak, bere subiranotasunaren adierazgarri, Autonomia Erkidego gisa eratzen du bere burua Espainiako Estatuaren barruan.
- b) Bakarreko eskumenen gaietan Euskal Herriak emandako zuzenbidea lehentasunez da erabilgarri beste edozeinen aurretik eta horren ezean besterik ez da erabiliko, osagarri, Estatuaren zuzenbidea.
- c) Lurralde historiko bakoitzeko ordezkari-kopuru berdinak osatuko du Eusko Legebiltzarra, bozketa orokor, aske, zuzen eta isilpeko bidez hautatuak.
- d) Euskal Herriaren aginteak Legebiltzarraren, Jaurlaritzaren eta Lehendakariaren bidez gauzatuko dira.

**75. ZEIN EPERAKO AUKERATZEN DA EUSKO LEGEBILTZARRA?**

- a) 5 urte.
- b) 2 urte, eta beste 2 urte luza daiteke.
- c) 4 urte.
- d) 4 urte, eta beste urtebete luza daiteke.

**76. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LEHENDAKARIA DELA ETA, ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?**

- a) Eusko Legebiltzarrak hautatuko du bere kideen artetik eta Erregeak izendatuko du.
- b) Eusko Legebiltzarrak hautatuko du bere kideen artetik, eta legebiltzarrak berak izendatuko du.
- c) Eusko Legebiltzarrak hautatuko du bere kideen artetik, eta Espainiako Gobernuako presidentek izendatuko du.
- d) Gobernu Kontseiluak hautatuko du bere kideen artetik, eta Eusko Legebiltzarrak izendatuko du.

**77. AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, EUSKO JAURLARITZAK NOREN AURREAN ERANTZUTEN DU POLITIKOKI?**

- a) Auzitegi Goreneko Zigor Arloko Salaren aurrean.
- b) Diputatuen Kongresuaren aurrean.
- c) Eusko Legebiltzarraren aurrean.
- d) Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren aurrean.

**78. ZEIN DIRA EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA ERKIDEGOAK BEREGANATZEN EZ DITUEN ESTATUAREN ZAMETARAKO KONTRIBUZIO GISA LURRALDE HISTORIKOEK EGITEN DITUZTEN EKARPENAK?**

- a) Ordainketak.
- b) Etekinak.
- c) Kupoak.
- d) Itunak.

**79. NORI DAGOKIO LURRALDE HISTORIKOEN ZERGA SISTEMA OSATZEN DUTEN ZERGEN ORDAINARAZPENA, KUDEAKETA, LIKIDAZIOA, IKUSKARITZA, BERRIKUSPENA ETA BILKETA?**

- a) Kasuan kasuko foru aldundiei.
- b) Euskal Herriko Ogasun Orokorrari.
- c) Eusko Jaurlaritzari.
- d) Lurralde historikoen Batzar Nagusiei.



**80. AUTONOMIA ELKARTE OSORAKO ERAKUNDEEN ETA BERTAKO KONDAIRA-LURRALDEETAKO FORUZKO IHARDUTZE-ERAKUNDEEN ARTEKO HARREMANEI BURUZKO AZAROAREN 25EKO 27/83 LEGEAREN 7. ARTIKULUAREKIN BAT ETORRIZ, ZERTAN DAGOKIE AZKEN HAUEI ERAKUNDE ERKIDEEN ARAUAK GARATU ETA BETEARAZTEA?**

- a) Gizarte laguntzan.
- b) Abere ustiaketa eta osasunean.
- c) Suteen aurkako defentsan.
- d) Udalen eta toki-erakunde txikien hauteskunde araubidean.

**81. AUTONOMIA ELKARTE OSORAKO ERAKUNDEEN ETA BERTAKO KONDAIRA-LURRALDEETAKO FORUZKO IHARDUTZE-ERAKUNDEEN ARTEKO HARREMANEI BURUZKO AZAROAREN 25EKO 27/83 LEGEAREN 7. ARTIKULUAREKIN BAT ETORRIZ, HURRENGOETATIK ZEIN EZ DA LURRALDE HISTORIKOEN ESKUMEN ESKLUSIBOA?**

- a) Euren Foru Organoen antolaketa, erregimena eta funtzionamendua.
- b) Lurralde Historikoaren interesekoak diren kultur erakundeak sortu eta mantentzea.
- c) Suteen aurkako defentsa
- d) Errepideen eta bideen plangintza, proiektua, zaintza, aldaketak, finantzaketa, erabilera eta ustiapena egitea.

**82. ADMINISTRAZIO-PROZEDURAREN BARRUAN, NOLA DEITZEN DA EBAZPENA EMATEKO KONTUAN HARTU BEHAR DIREN DATUAK ZEHAZTU, EZAGUTU ETA EGIAZTATZEKO FASEA?**

- a) Hasiera.
- b) Antolamendua.
- c) Instrukzioa.
- d) Amaiera.

**83. BADA KIZU ZEIN EPE EZARRI DUEN 30/1992 LEGEAK, 84. ARTIKULUAN, INTERESDUNEI ENTZUNALDIAREN IZAPIDEA EGITEKO?**

- a) Gehienez 15 egun dituzte eta gutxienez 10 eguneko epea.
- b) 15 eguneko epea.
- c) Ez da inoiz izango 20 egun baino gutxiagokoa.
- d) Gehienez 15 egun dituzte eta gutxienez 15 eguneko epea.

**84. 30/1992 LEGEAREN 58. ARTIKULUAREN ARABERA, ZEIN EPEREN BARRUAN EGIN BEHARKO DA JAKINARAZPEN ORO?**

- a) Egintza eman den egunetik 10 eguneko epea.
- b) 15 egun, egintza eman den egunaren hurrengotik hasita.
- c) 10 egun, egintza dagokion Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunaren hurrengotik hasita.
- d) 10 egun, egintza dagokion Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunetik hasita.

**85. BADAKIZU ZEIN DEN GORA JOTZEKO ERREKURTSOA JARTZEKO EPEA?**

- a) 3 hilabete.
- b) 2 hilabete.
- c) Hilabete 1, aurkaratu den egintza adierazia bada; bestela, 3 hilabete.
- d) Hilabete 2, aurkaratu den egintza adierazia bada; bestela, 6 hilabete.

**86. NORI DAGOKIO GORA JOTZEKO ERREKURTSOA EBAZTEA?**

- a) Aurkaratutako egintza eman zuen organoari.
- b) Aurkaratutako egintza eman zuen organoaren goragoko organoari.
- c) Aurkaratutako egintza eman zuen organoaren beheagoko organoari.
- d) Administrazioarekiko auzien jurisdikzioko dagokion organoari.

**87. BERRIKUSTEKO ERREKURTSO BEREZIA ADMINISTRAZIO-BIDETIK IRMOAK DIREN EGINTZEN AURKA AURKEZTU AHAL DA. ZEIN KASUTAN?**

- a) Ebazpena prebarikazioaren ondorioz ematen denean.
- b) Egintzak ematerakoan egiteko errakuntzaren bat egin denean, eta espedienteari erantsitako agiriak ikusita jabetzean.
- c) Ebazpena ematerakoan funtsezko eragina izan duten zenbait agiri edo lekukotasun, epai irmo batek faltsuak direla adierazten duenean.
- d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

**88. ZEINTZUK DIRA ADMINISTRAZIO EGINTZAREN XEDEAREN EZAUGARRIAK?**

- a) Posiblea, legezkoa eta zehaztu gabea izan behar da.
- b) Posiblea, legezkoa, zehatza eta helburuei egokitua izan behar da.
- c) Beharrezkoa, posiblea, orokorra izan behar da.
- d) Egingarria eta juridikoa izan behar da.

**89. NOLA SAILKATZEN DITU EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOARI BURUZKO LEGEAK FUNTZIONARIOEN ORDAINSARIAK?**

- a) Soldatak, hirurtekoak eta destinoagatiko osagarria.
- b) Oinarrizkoak eta osagarriak.
- c) Soldata eta ordainsari osagarriak.
- d) Oinarrizkoak eta osagarri bereziak.

**90. FUNTZIONARIOEN KASUAN, ZEIN DA BETETZEN DUTEN LANPOSTU-MAILARI DAGOKION ORDAINSARIAREN IZENA?**

- a) Soldata.
- b) Osagarri berezia.
- c) Destinoagatiko osagarria.
- d) Oinarrizko ordainsaria.

**91. EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOARI BURUZKO 6/1989 LEGEAK FUNTZIONARIOEN ZENBAIT ESKUBIDE EZARTZEN DITU. HAUETATIK ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?**

- a) Ordutegia lanaldi jarraituan betetzeko eskubidea.
- b) Ordainsarien gehikuntza KPI baino txikiagoa ez izateko eskubidea.
- c) E taldeko funtzionarioentzat, sektore publikoan beste bigarren lanpostu bat betetzeko eskubidea.
- d) Etengabeko lanbide heziketarako eskubidea.

**92. EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOARI BURUZKO 6/1989 LEGEAK ZER EZARTZEN DU NORBERAREN GAIEN ZIOZKO LIZENTZIARI DAGOKIONEZ?**

- a) Lizentzia hori ordaindua izango da beti.
- b) Legeak berak ezartzen dituen kasuetan bakarrik izango da ordaindua.
- c) Lizentzia hau ematea zerbitzuaren beharren menpe geldituko da, eta horren iraupena, bateratuta, 2 urteko, ez da 3 hilabetetik gorakoa izango.
- d) Lizentzia hau ematea zerbitzuaren beharren menpe geldituko da, eta horren iraupena, bateratuta, 2 urteko, ez da hilabetetik gorakoa izango.

**93. EUSKARAREN ERABILERA ARAUZKOTZEKO OINARRIZKO 10/1982 LEGEAREN 9. ARTIKULUAN ZEHAZTEN DENAREN ARABERA, HERRITARREK JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREKIN DITUZTEN HARREMANAK DIRELA-ETA ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?**

- a) Herritar guztiek gaztelania erabili behar dute.
- b) Herritarrek aukeratzen duten hizkuntza ofiziala erabili ahalko dute, baina itzulpena eskatu ahalko zaie.
- c) Herritarrek aukeratzen duten hizkuntza ofiziala erabili ahalko dute, baina ezin zaie inolako itzulpenik eskatu.
- d) Euskararen erabilera eta atzerriko beste edozein hizkuntzarena parekatuko dira.

**94. ZEINTZUK DIRA BATZAR NAGUSIEK EMATEN DITUZTEN IZAERA OROKORREKO XEDAPENAK?**

- a) Lurralde Historikoko arau orokorrak.
- b) Foru arau orokorrak.
- c) Foru arauak.
- d) Foru dekretuak.

**95. ZENBAT KIDE DITU BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEN MAHAIK?**

- a) Lehendakaria eta mahaikide bi.
- b) Lehendakaria, lehendakariorde bat eta idazkari bat.
- c) Lehendakaria, bi lehendakariorde eta idazkari bat.
- d) Lehendakaria, bi lehendakariorde eta bi idazkari.

**96. FORU ALDUNDIAK BATZAR NAGUSIEN AURREAN ERANTZUNGO DU ALDUNDIARI KUDEATZEKO EMAN ZAIZKION INTERESEN KUDEAKETAZ. NOLA ERANTZUNGO DU?**

- a) Era subsidiarioan.
- b) Era mankomunatuan.
- c) Solidarioki.
- d) Era indibidualean.

**97. 3/1987 FORU ARAUAREN ARABERA, FORU ALDUNDIAREN BATZARRALDIEK ZER BEHAR DUTE BALIOZ ERA DAITEZEN?**

- a) Ahaldun Nagusia, idazkaria eta foru diputatuen herena bertan izatea.
- b) Ahaldun Nagusia, idazkaria eta foru diputatuen gehiengo osoa bertan izatea.
- c) Ahaldun Nagusia edo ordezten duena eta, gutxienez, foru diputatuen erdia bertan izatea.
- d) Ahaldun Nagusia eta Idazkaria edo horiek biak ordezten dituztenak eta foru diputatuen herena bertan izatea.

**98. 3/1987 FORU ARAUAREN ARABERA, ZEIN ORGANORI DAGOKIO BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAREN ORDEZKARITZA?**

- a) Batzar Nagusiei.
- b) Foru Aldundiari.
- c) Ahaldun Nagusiarri.
- d) Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren foru diputatuari.

**99. HAUEN ARTEAN ZEIN EZ DA BATZAR NAGUSIEN ESKUMENA?**

- a) Ahaldun Nagusia hautatzea.
- b) Aurrekontuak egitea.
- c) Foru Aldundiaren jarduna bultzatzea.
- d) Foru Aldundiaren kontrola.

**100. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO 4/2005 LEGEAK ZEHAZTEN DUENAREN ARABERA, ZEIN DA ERANTZUN OKERRA?**

- a) Pertsona anitzeko administrazio-organoetan ordezkaritza orekatutzat joko da, hain zuzen, sexu biek % 40ko ordezkaritza, gutxienez, izatea.
- b) 4/2005 Legea Foru Administrazioaren mende edo hari loturik dauden erakunde publikoei aplikatzen zaie.
- c) Debeku da pertsonen sexuan oinarritzen den bereizkeria oro, zuzenekoa zein zeharkakoa.
- d) Euskal aginte publikoek ezin izango dute inolako diru-laguntza edo laguntzarik eman sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duen edonolako jardueratarako.

**101. AZAROAREN 25EKO 1417/2005 ERREGE DEKRETUAN EZARRITAKO ONDORIOETARAKO, ZER DA IBILGAILU MOTORDUNA, 2. ARTIKULUAN JASOTAKO DEFINIZIOAREN ARABERA? 2?**

- a) Errepidetik ibiltzeko M1, M2, N1 edo N2 kategorietako edozein ibilgailu motordun, gutxienez lau gurpil dituena eta, inolako aldaketarik egin gabe, 80 km/h-tik gorako gehieneko abiadura lortu ahal duena.
- b) Errepidetik ibiltzeko M1, M2, N1 edo N2 kategorietako edozein ibilgailu motordun, gutxienez lau gurpil dituena eta, inolako aldaketarik egin gabe, 25 km/h-tik gorako gehieneko abiadura lortu ahal duena.
- c) Errepidetik ibiltzeko M2, M3, N2 edo N3 kategoriako edozein ibilgailu motorduna, gutxienez lau gurpil dituena eta, inolako aldaketarik egin gabe, 25 km/h-tik gorakoa gehieneko abiadura lortu ahal duena.
- d) Errepidetik ibiltzeko M2, M3, N2 edo N3 kategoriako edozein ibilgailu motorduna, gutxienez lau gurpil dituena eta, inolako aldaketarik egin gabe, 90 km/h-tik gorakoa gehieneko abiadura lortu ahal duena.

**102. TITULARREK GARRAIO-TXARTELEN ERABILERA BESTE PERTSONA BATZUEI LAGATZEAK, DOHAIN EDO KOSTU BIDEZ, ZER ERANTSIKO DIO DIRU-ZEHAPENARI?**

- a) Titularraren ibilgailu guztiak ibilgetzea.
- b) Titularrak jarduera burutzen duen lokalak prezintatzea.
- c) Garraiolariak dituen mota bereko baimen, lizentzia edo kopia ziurtatu guztiak balioa galtzea.
- d) Garraioko edozein jarduera burutzeko desgaiakuntza mugagabea.

**103. ESTATUTUAREN 12. ARTIKULUAREN ARABERA, HONAKO GAI HAUETAN BAKARRIK AL DAGOKIO EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA ERKIDEGOARI ESTATUAREN LEGERIA BETEARAZTEA?**

- a) Ingurumenean eta ekologian.
- b) Pisu eta neurritan, metalen kontrastean.
- c) Arte Ederren sustapenari eta irakaskuntzari lotutako erakundeetan.
- d) Euskal Herriko arrantza-sektorearen antolamenduan.

**104. 56/1985 DEKRETUAREN ARABERA, ARABATIK SANTURTZIKO PORTURA DOAN GARRAIO BEREZI BATEAN, ZER DAGOKIO BIZKAIKO FORU ALDUNDIARI?**

- a) Bizkaiko ibilbidea egiteko baimena ematea.
- b) Arabako Foru Aldundiak emandako baimena ikus-onestea.
- c) Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak emandako baimena ikus-onestea.
- d) Bizkaiko ibilbideari buruzko txostena egitea.

**105. BAIMENDUTAKO GEHIENEO MASA 13 TONAKOA DUEN IBILGAILU BAT ERREPIDEAN DOA, BAINA MASA HORI % 15EAN GAINDITZEN DU. KASU HORRETAN, IBILGAILUA IBILGETZEA AGINDU BEHAR AL DA?**

- a) Bai; izan ere, beti agindu behar da ibilgailua ibilgetzea gehiegizko pisua masaren % 6 baino handiagoa denean, ibilgailuaren baimendutako gehieneko masa zein den kontuan izan gabe.
- b) Ez, gehiegizko pisua masaren % 25 baino handiagoa ez delako.
- c) Bai, gehiegizko pisua masaren % 10 baino handiagoa delako.
- d) Ez, ez da ibilgailua ibilgetu behar, baimendutako gehieneko masa 20 tona baino txikiagoa baita.

**106. TAKOGRAFO DIGITALEAN, KONTROL-GAILUAK ABISUA EMANGO AL DIO GIDARIARI ETENIK GABE GIDATZEN LAU ORDU ETA HOGEITA HAMAR MINUTU BAINO GEHIAGO EGIN DITUENEAN?**

- a) Ez du gidaria abisatuko.
- b) 15 minutu lehenago abisatuko du.
- c) 5 minutu lehenago abisatuko du.
- d) 10 minutu lehenago abisatuko du.

**107. EGINKIZUN HAUEN ARTEAN, ZEIN EZ DAGOKIO ERREPIDEKO GARRAIOKO BATZORDE NAZIONALARI?**

- a) Administrazioarekin lankidetzan, zamen informazio- eta banaketa-zentroa sustatzea eta zentro hori sortzea.
- b) Administrazioak egin diezazkion kontsultak bideratzea.
- c) Garraioaren arloan aplikatzekoak diren legezko xedapenak onartzea.
- d) Administrazioak eskatuta, emakida iraungitzeak dakartzan zehapenak ezartzeko prozeduran txostena egitea.

**108. LURREKO GARRAIOEN ANTOLAMENDUARI BURUZKO ERREGELAMENDUAREN ARABERA, ORO HAR NOLAKOAK DIRA SALGAIEN GARRAIO BEREZIRAKO BAIMENAK?**

- a) Besterenezinak, aurreko titularraren nahitaezko jaraunsleen alde besterentzen direnean izan ezik, baldin eta titular hori hil egin bada, erretiroa hartu badu edo ezintasun fisikoa edo legezko ezgaitasuna badu.
- b) Besterenezinak dira beti.
- c) Besterengarriak dira beti.
- d) Aurreko aukeretatik bat ere ez.

**109. NORK EZ DU BETETZEN OHOREAREN BETEKIZUNA?**

- a) Epai irmo bidez, dolozko delituengatik hiru hilabete arteko zigorra jaso dutenek.
- b) Epai irmo bidez, dolozko delituengatik hilabeteko zigorra jaso dutenek.
- c) Zerga, lan, gizarte-segurantz, bide-segurtasun edo ingurumeneko arauak modu oso larrian eta behin eta berriro bete ez dituztenek.
- d) Aurreko erantzunak ez dira zuzenak.

**110. BATZORDEEN ARBITRAJE-JARDUERAK IDATZIZ ESKATUKO DIRA, ETA ESKATZAILEAK EDO HAREN ORDEZKARIEK SINATUKO DUTE ESKAERA. ZER ADIERAZI BEHAR DA ESKAERA HORRETAN?**

- a) Erreklamazioa jarri duenaren izena eta helbidea.
- b) Demandatuaren izena eta helbidea.
- c) Erreklamazioa justifikatzen duten gertaerei eta zuzenbideko oinarriei buruzko azalpena.
- d) Aurreko guztiak dira nahitaezkoak.

**111. HONAKO ADIERAZPEN HAUETATIK, ZEIN DA OKERRA?**

- a) Egiten diren eremuaren arabera, garraioak barnekoak edo nazioartekoak izan daitezke.
- b) Barneko garraioak dira sorrera eta helburua Espainiako Estatuaren lurralde barruan dutenak.
- c) Nazioarteko garraioak dira ibilbidearen zati bat atzerriko estatuen lurraldean dutenak.
- d) Egiten diren eremuaren arabera, garraioak barnekoak edo kanpokoak izan daitezke.

**112. ZER INFORMAZIOA ERREGISTRATU BEHAR DU TAKOGRAFO DIGITALAK?**

- a) Abiaduraren eta distantziaren neurketak.
- b) Txartelak sartu eta ateratzeari buruzko kontrola.
- c) Gidariaren jardunak.
- d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

**113. NOLAKOA DA MATRIKULATZEN DIREN IBILGAILU BERRIEK INSTALATU BEHAR DUTEN TAKOGRAFOA?**

- a) Magnetikoa.
- b) Elektronikoa.
- c) Digitala.
- d) Eskuzkoa.

**114. ZENBAT DENBORA EGON BEHAR DA DISKO-DIAGRAMA TAKOGRAFO ANALOGIKOAN SARTUTA?**

- a) Hilabetean, nahitaez.
- b) Gidariaren lanaldiak dirauen denboran.
- c) Gidariak egokitzat jotzen duen denboran.
- d) Berrogeita zortzi orduz, gutxienez.

**115. TAXIAREN EUSKAL LEGEAREN ARABERA, NORI DAGOKIO BIDAIARIEN HIRI-GARRAIORAKO LIZENTZIAK EMATEA?**

- a) Udalei.
- b) Aldundiei.
- c) Sustapen Ministerioari.
- d) Eusko Jaurlaritzari.



# **AUXILIARES DE INSPECCIÓN**

**1. SE REGISTRÁN POR LO DISPUESTO EN LA LOTT:**

- a) Los transportes de viajeros y mercancías.
- b) Los transportes por ferrocarril.
- c) Los transitarios.
- d) Todos los anteriores.

**2. SEGÚN LA LOTT LOS OBJETIVOS DE LA POLÍTICA GENERAL DE TRANSPORTES SERÁN FIJADOS POR:**

- a) Las Comunidades Autónomas.
- b) Los ayuntamientos.
- c) Las diputaciones.
- d) El Gobierno de la Nación.

**3. SEGÚN EL ROTT, CUAL DE LAS SIGUIENTES SECCIONES CORRESPONDE AL CONSEJO NACIONAL DE TRANSPORTES TERRESTRES:**

- a) Sección de Transporte de Viajeros.
- b) Sección de actividades auxiliares y complementarias del Transporte.
- c) Sección de Agencias de Transportes.
- d) Sección de Transitarios.

**4. EL COMITÉ NACIONAL DEL TRANSPORTE POR CARRETERA ESTÁ INTEGRADO:**

- a) Por representantes de la administración del Estado.
- b) Por representantes de las administraciones de las comunidades autónomas.
- c) Por representantes de las asociaciones de transportistas y de actividades auxiliares y complementarias del transporte por carretera.
- d) Ninguna de las respuestas es la correcta.

**5. LAS RESOLUCIONES QUE ADOPTAN LAS JUNTAS ARBITRALES DEL TRANSPORTE SE DENOMINAN:**

- a) Sentencia.
- b) Orden.
- c) Decreto.
- d) Laudo.

**6. ¿QUÉ FUNCIONES NO SON COMPETENCIA DE LAS JUNTAS ARBITRALES?:**

- a) Resolver las controversias de carácter laboral.
- b) Actuar como depositaria de mercancías.
- c) Resolver las controversias de carácter mercantil surgidas en relación con el cumplimiento de los contratos de transporte terrestre.
- d) Enajenar las mercancías no retiradas que corrieran riesgo de perderse.

**7. LOS MIEMBROS DE LA INSPECCIÓN DE TRANSPORTE, CUANDO EXISTAN INDICIOS FUNDADOS DE EXCESO DE PESO EN LOS VEHÍCULOS, ¿PODRÁN ORDENAR SU TRASLADO HASTA LA BÁSCULA DE PESAJE?**

- a) Si, en todos los casos.
- b) Si, cuando no suponga un recorrido de ida superior a 30Km.
- c) Si, cuando no suponga un recorrido de ida superior a 50Km y la báscula no se encuentre situada en el mismo sentido de la marcha.
- d) No, sólo se puede pesar cuando exista una báscula en el lugar del control.

**8. SEGÚN EL DECRETO DE DESARROLLO REGLAMENTARIO 1/87 DE 13 DE MARZO REGULADOR DE LA INSPECCIÓN Y SANCIÓN DEL TRANSPORTE MECÁNICO POR CARRETERA EN BIZKAIA ¿DE QUIEN ES COMPETENCIA LA HABILITACIÓN DEL PERSONAL DE INSPECCIÓN DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA?:**

- a) Del Jefe/a del Servicio de Ordenación del Transporte de la Diputación Foral de Bizkaia.
- b) Del Director/a General de Transportes de la Diputación Foral de Bizkaia.
- c) Del Diputado/a General de la Diputación Foral de Bizkaia.
- d) Del Diputado/a Foral de Transportes (actualmente de Transportes y Urbanismo) de la Diputación Foral de Bizkaia.

